

Lankidetzaren eta akordioaren emaitza Gasteizen

Gasteizko herritik dator notizia, Euskararen Etxea da urriaz gero hiriburuko Parte Zaharreko Oihaneder jauregia. Asmo baten lehen zutarria omen, hala ere, proiektuak baduela beste gogo bat ere, hau da, egiazko Kafe Antzokia. Bide horretan, urrats egin du Euskararen Etxeak.

| MIEL A. ELUSTONDO |

BOST LAGUN DITUGU solaskide Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean. Gasteizko Kafe Antzokiaren Aldeko Plataformako kideak dira Iñaki Lazkano, Idoia Zapirain, Manu Diaz de la Barcena, Lukas Etxeberria eta Manuel Moreno. Joan den udazkenean Arabako hiriburuan hamaikatan entzun ditugun izenak dira “Kafe Antzokia”, “Oihaneder Euskararen Etxea” eta “Lazarraga Kultur Elkarte”, nahastea eragiteraino. Iluna argitze aldera, esan dezagun, hasteko, Lazarraga Kultur Elkarte, berez, Gasteizko Kafe Antzokiaren Aldeko Plataforma edo herri mugimenduak hartu behar izan duen egitura dela, izaera juridikoduna, Gasteizko Udalarekiko harremanak legez bideratu ahal izateko, besteak beste. “Hiriko udalarekin Plataformakook sinatutako akordioaren arabera, Oihaneder Euskararen Etxean kultur programazio bat eratuko zela adostu genuen, eta, horretarako, udalak lehiaketa deitu zuen. Lazarraga Kultur Elkarteak irabazi zuen lehiaketa, eta beraren ardura izango da datorren urtean Oihanederren eratuko diren kultur jarduerak antolatzea”.

Kafe Antzokiaren hotsak ez dira berriak Gasteizen, baina ez dira zeharo aspaldikoak ere. Inondik ere, horixe zen udalaren lehenbiziko asmoa: Kafe Antzokia eraiki edo abiaraztea, bederen. “Kontzertu handiak egin ahal izateko modu-

ko eraikina izango litzateke kafe antzokia, ostalaritza zerbitzua ere barne izango zuena. Plataformakook, dena den, euskal komunitateak beste behar batzuk ere bazituela iruditzen zitzaigun: kontzertuak egiteko aretoa ez ezik, besterik nahi eta behar genuen Gasteizko euskalgintzan ari den mugimenduari gune bat eskaintzeko, batetik, eta bestetik, berriaz, Gasteizko euskaldunei arnagune inportante bat eskaintzeko”. Arbola horretatik bi adar atera zituen Plataformak: bateko Kafe Antzokia –hau da, udalaren

“Gure komunitatea trinkotzen dugunean hasiko gara sinesten euskalduna badela nor hiri honetan”

Plataforma

asmo bera—, besteko Euskararen Etxea, hots, Plataformak berariaz mahai gainean jarritako eskaera. “Tailerrak, bilerak eta gisakoak bere baitan hartuko lituzkeen eraikina, esan dezagun; balioaniztuna”. Eta horixe da Arabako hiriburuan urriaren 15ean, Gasteizko Udalak eta Plataformak hitzarmena sinaturik, aurkeztu eta estreinatu zutena: Oihaneder Euskararen Etxea. “Kafe Antzokia dugu oraindik eginkizun”.

2008tik honakoa

2008koa da Gasteizko Udalaren akordioa, Kafe Antzokia egitekoa. Bazuen horretarako esleitutako dirua ere. “Prozesu parte hartzailea abiarazi zuen udalak, txostenak ere idatzi zituzten teknikariek, eta Gasteiz Antzokia izeneko proiektua onartu zuen udalbatzak. Baina bide motza izan zuen asmoak”. Izan ere, 2011n udal hauteskundeak izan ziren eta, honenbestez, agintari aldaketa Gasteizko udaletxean. “Hala ere, hor zen beti aurreko esperientzia gauzatu gabeko hura, proiektuari baietz esan eta alderdi guztiak ados egon arren ere, hura bere horretan usteltzen gelditzeko arriskua. Lehengo egitasmoak aurrera egin ez zuenez, zenbait jende ez zuen sinesten proiektua gauzatuko zenik. Horregatik sortu genuen Plataforma, proiektua udaletxetik kalea ateratzeko, eragileak konbentzitzeko, ideia sozializatzen”. Horretan jardun zuten gaur egun Plataformako kide direnek. “Berez, 2012ko uztailean egin genuen gure lehen agerraldi publikoa: kultur arloan lanean ari diren ehun lagun sinadurak bildu genituen manifestu batean, Gasteizen Kafe Antzoki baten beharra zegoela aldarrikatuz, eta Plataformakook horren aldeko lana egingo genuela aginduz”. Harrezkero, udalarekin harremanetan betiere, urtea eman zuten proiektua mamitzen 2013ko udan udal gobernuari ez ezik, oposizioari



ZALDI ERO

Euskararen Etxearen bultzatzaileak, Gasteizko Kafe Antzokiaren Aldeko Plataformako kideak. Ezkerretik eskuinera. Manu Diaz de la Barcena, Lukas Etxeberria, Idoia Zapirain, Manuel Moreno eta Iñaki Lazkano.

ere aurkeztu zieten arte. Ordurako, haatik, bi zutabe zituen egitasmoak: Kafe Antzokia batetik, eta Euskararen Etxea, berriz, bestetik. “Udalak azeleragailuari sakatu zion orduan, eta Euskara Zerbitzuarekin harremanetan jarri gintuen”. Inondik ere, handik aurrera lankidetzan jardun zuten herri eragileok eta udalaren Euskara Zerbitzuak.

2014ko urtarrilean, bestalde, *Badu Bada* erakusketaren kariatara, Kafe Antzokiaren Aldeko Plataforma honek jendaurrean aurkeztu zuen bi zutabeko proiektua, hau da, udal ordezkariak ordurako eza gutzen zutena. Lehenago, berriz, Gasteizko kultur gintzan edota euskalgintzan eragile direnekin ere elkarrizketak egiten ari ziren erran delako Plataformako kideok. Izan ere, elkarrizketa, akordioa, adostasuna izan ditu beti helburu Plataformak, haserrea eta kalapita galarazi nahi izan ditu sortu zenetik. “Plataforma sortu zenean bage-

nuen kezka. Alderdi politikoek Kafe Antzokiaz hitz egiten zutenean, beti ari ziren liskar giroan. Horrek kezka sorrarazten zigun; alegia, bagenuen kezka liskar politikoaren aitzakian baten batek proiektuaren kontra egingo ote

“Gure asmoa egitea da, eta eragitea. Guk egin egingo dugu!”

Plataforma


zuen. Plataformaren sorreraren arrazoiatarik bat, horixe izan zen, gaia liskar politikotik kanpo mantentzea eta, batez ere, kafe antzokia euskararen esparrutik eraikitzea. Euskal kulturari bidea egingo dion proiektua da, bide berriak eraikitzen saiatuko dena. Eta lortu dugu, lortu dugunez, udalean ordezkariatza politikoa duten lau

alderdietarik batek ere ez baitu zalantzan jarri proiektua. Denen babesba dugu. Joan deneko bi urtean lan egin dugu akordio eta adostasun bila. Kokapena bera, adibidez, ika-mika iturri bihurtzen ari zenean, gu ez ginen eztabaida horretan sartu, beste lehentasun batzuk genituelako. Guk zubi-lanak egin genituen, bai udal gobernuarekin mintzatuz, bai euskalgintzarekin, harremanak onbiderratzeko. Besteak beste, Kafe Antzokiaren kokapena izan zen eztabaidagai. “Baina alderdi politikoaren arteko eztabaida izan zen, edo proposamen ezberdinen artean aukeratu beharra, ez Kafe Antzokiaren beharrari buruzkoa. Kokapenari dagokionez, lehenengo, 2011n, Kafe Antzokia Guridi zinemetan jartzea proposatu zuen oraingo alkateak berak. EAJk eta EH-Bilduk Espainiako Bankuaren egoitzaren aldeko hautua egin zuten. PSE-EEk, berriz, Monte-

Babeslea: Hondarribiko Udala



Hondarribiko Udala



ZALDI ERO

2014an, irailetik abendura bitarte, 50.000 euroko aurrekontua izan du Montehermoson dagoen Euskararen Etxeak. 2015ean Gasteizko Udalak 250.000 euro emanez hornituko du.

hermoso jo zuen helburu, Araki-sen proiektua amaitutzat eman eta gero”. Proposamen ezberdinon ondorio da Kafe Antzokiaren proiektu osoaren parte den Oihaneder Euskararen Etxea.

2014ko irailetik abendura bitarte, 50.000 euroko aurrekontua izan du Oihaneder Euskararen Etxeak, “baina udalaren Euskara Zerbitzuak kudeatu du diru kopuru hori: 36.000 euro, EBPN gartzeko izan dira; gainerako 14.000 euroak, berriz, bestelako ekitaldiak antolatzeko: dela sustapenerako, dela antzerki emanaldiak antolatzeko nahiz bestelako eginkizunetarako”.

2015ean, bestalde, 250.000 euro emanez hornituko du Gasteizko

Udalak Euskararen Etxea: “60.000 euro, kultur programazioa kudeatzeko izango dira. 50.000 euro, ekipamenduan –hau da, eraikinean–, zenbait egokitzapen egiteko erabiliko dira. Gainerako 125.000k, pro-

“Kafe Antzokia dugu oraindik eginkizun”

Plataforma

gramazioak dakartzan gastuetarako dira”. Kudeaketa partekatua izan da 2014ko hondarrekoa, eta 2015ean ere batera ariko dira lanean Lazarraga Kultur Elkartea eta Udalaren Euskararen Zerbitzua.

Erreferentzialtasuna helburu

Gaur egun kultur ekitaldiak badira Gasteizen. Dela Aitzogile kaleko Parral taberna, dela Florida Kultura Etxea, dela euskaltegiak, dela udalaren gizarte-etxeen sarea, dela Gaztetxea, Euskararen kultura elkarteak, Jimmy Jazz aretoa... hamaika dira euskarazko jardura eta ekitaldiak antolatzen dituzten eragileak. Oihaneder Euskararen Etxeak euskaltzaileen babes eta bilgune izan nahiko luke; inori itzalik egin gabe, haatik. “Bata bestearen osagarri gara denok, eta bata bestearen aberasgarri. Beharrezkoak dira eragile guztiak, eta Euskararen Etxe honen borondatea da guztiok elkar elikatzea, elkar osatzea”. Plataformak, dena den, erreferentzialtasuna du helburu. “Ez dugu ezer ordezkatzeko asmorik, han eta hemen sor litezkeen dinamikak elikatzea baino. Besterekin koordinaturik egin nahi dugu lan. Are, Lazarragak antolaturik ere, Oihanederretik kanpora ere gauza litezke ekitaldiak. Azken finean, Euskararen Etxea aitzakia izan dadin nahiko genuke, dela jendea biltzeko, dela kultura sortzeko. Ikusiko da zer sortzen den jende gurutzatze horretatik! Baina, hasteko, hemen izan ditugu bertso eskolakoak, hemen IKA eta AEK-koak, hemen Geu elkarteak, mintzalagunak... Euskaldunon eta euskaltzaile guztion etxea izatea nahi dugu Oihaneder. Zabalik dituzte ateak, eta gonbidatuta daude. Beren auzoan lanean jarraitu nahi dutela? Aurrera! Horien premia eta beharra baitago

Han-hemengo kafe antzokiak

“1995eko abenduaren 15ean ireki zuten Bilbon Kafe Antzokia. Harrezkero, Durangokoa, Bermeokoa eta besteren bat ireki zuten. Handik hiru urtera, Bilbo-koaren arrakastaren usainean, Gasteizko zenbait euskaltzale taldea osatu zuten, eta kafe antzokia martxan jartzen saiatu ziren hirian. Lanak aurreratu zituzten, zenbait egoitza ere aztertu zituzten, baina besterik ez: ekimena ez zen gauzatu. Geroago –eta oraingo honen

aurreko legegintzaldiko kontua da–, Eusko Alkartasunak mahai ganean jarri zuen kafe antzokiaren ideia. Sasoi hartan, Eusko Alkartasunaren botoak balio handia zuen, eta udal gobernua ideia aintzakotzat hartu eta bultzatzea onartu zuen. Enpresa jakin bati proiektua agindu, honek txosten bat egin, eta prozesu parte-hartzaile bat abiarazi zuen udalak hainbat eragilerekin. Horrek bere bidetxoak egin zuen, asmoa gauzatu ez bazen ere”.

Oihaneder, euskararentzat

“Gaur gaurkoz, Oihaneder jau-regiak bi proiektu hartuak ditu bere barruan: Montehermoso Kulturunea eta Euskararen Etxea. Elkarrekin biziko gara hurrengo ekaina arte, baina, gero, aurreikusia eta onartua dagoenez, jauregi hau Oihaneder Euskararen Etxea izango da. Luzaro gabe, hemen egingo diren jarduera guztiek euskara izango dute ardatz. Beharbada ez dira denak euskaraz egingo, eta euskaraz egiten ez dena ez da, beharbada, gaztelaniaz ere egingo, gure inguruan bestelako hizkuntza komunitateak ere badirelako, bestelako errealitate linguistikoak, eta aniztasun horrek lekua izango du Oihanederren, nahiz eta proiektuaren ardatza euskara izan: proiektu hau euskararentzat da”.

hirian. Gure aldetik laguntza besterik ez dute izango”.

Bistan da euskaldun guztiak ez direla euskaltzale, eta Oihaneder Euskararen Etxea prest da euskaltzale ez direnak ere biltzeko lan egiteko: “Euskalgintzak urteak daramatza horiek erakarri nahian, zenbait programa ere badira; batzuek helburua lortzen dute, beste batzuek ez. Adibidez, Mintzalaguna egitasmoak hainbat euskaldun biltzen du. Beste ekimen batzuek ere lortzen dute euskaltzale ez den euskalduna biltzea; AEKren Korrikak, esaterako”.

Gasteizen, zerutik jakina da, joan den mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan makina bat euskaldun batu zen, industriaren indarrez. Eibar, Oñati, Arrasate... hamaika herri izan zituzten jatorri. Diktadura garaia zela, euskararekiko atxikimendu txikia zela... ezkutu geratu da euskaldun horien euskara, nekez izan du presentzia hiriburuan... “Guk azalera ekarri nahi ditugu horiek ere. Horretaz ari gara erreferentzialtasuna lortu nahi dugula esaten dugunean. Gasteizen ekitaldi mordo egiten da



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Gasteizko Udalak eta Plataformak urriaren 15ean sinatu zuten hitzarmena. Argazkian, Javier Maroto alkatea eta Lukas Etxeberria Plataformako kidea.

euskaraz eta euskararen inguruan, baina guztiz sakabanatuta. Etxe hau erreferente izan liteke askorentzat”.

50.000 euskaldun dira Gasteizen, eta elkar ezagutzen ez. “Komunitate hori trinkotu nahiko genuke, ekitaldien bidez, edo askotariko programa eta jardueretan parte hartuzera bultzatuz. Gure komunitatea trinkotzen dugunean hasiko gara sinesten euskalduna badela nor hiri honetan. Gasteizko populazioaren laurdena gara euskaldunok, dagokigun indarra eta pisua izan behar dugu, baita udalak eta aldundiak antolatzen dituzten gainerako jardueretan ere”. Igaro da Nazioarteko Antzerki Jaialdiak euskarari egiten dion ezikusia salatzeke garaia. “Gu erasora goaz! Gure asmoa egitea da, eta eragitea. Guk egin egingo dugu!”. Gero gerokoak.

Kafe Antzokia helburu

Oihaneder Euskararen Etxea abiarazirik ere, oraindik Kafe Antzokia

“Oihaneder erreferente izan liteke Euskal Herrian, herri ekimena eta instituzioak gutxitan bezala uztartu baitira Gasteizen”

Plataforma

eginkizun dela azpimarratu dute Lazarraga Kultur Elkarteko edo Plataformako lagunek. “Bitartean ezingo dugu formatu handiko ekitaldirik antolatu, beste kafe antzoki batzuek horixe baitute alde. Guk, aldiz, bestelakoak ditugu fabore: espazio ezberdinak ditugu, aldi berean jarduera ezberdinak garatzeko eta jende ezberdinarengana iristeko. Bestea ere etorriko da”. Oraingoz, arnagune funtzionala izango da Euskararen Etxea, euskara lehentasuna izango duen egoitza, euskaratik euskarara bide egingo duena. Badu bestelako bereizgarrikerik ere, ordea: “Hasieratik, proiektu honetan, arlo instituzionala eta herritara eskutik datoz, batera. Elkarlanaren eta adostasunaren emaitza da, ez da, bakarrik, euskaltzaleen ekimena: erakundeen babes osoa daukagu. Alde horretatik, Oihaneder erreferente izan liteke Euskal Herrian, herri ekimena eta instituzioak gutxitan bezala uztartu baitira Gasteizen”. Guk Gasteizen gauzatu dugun asmoak, esperientzia honek, bideak zabal litzake beste herri askotan ere. Zergatik ez, bada?”.

Geroak esango du. Bitartean, jarria da lehen harroina, Oihaneder Euskararen Etxea, eta harroin horren gainean eraikiko da Kafe Antzokia. Hori, dena den, ageriko! ■

